

OSASUN MENTALARI LAN-MUNDUTIK HELTZEKO PROPOSAMENAK

2024KO APIRILAREN 28A
LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNAREN
MUNDUKO EGUNA

UCTk, 2023an, osasun mentalari eta lanari buruzko txosten bat egin du, laneko osasun mentalaren tratamendu egokia bermatzeko datuak, analisiak eta eskakizunak emateko. Ildo horretan, bat egiten dugu honako proposamen hauek eskatzearekin:

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legea eguneratzea, laneko errealitate berriak egokitzeke, osasun mentalekin eta enpresako digitalizazioaren arrisku espezifikoekin lotutako ebaluazioak eta prebentzio-neurriak sartuta.
- Lan-jatorriko arrisku psikosozialen kudeaketari buruzko araudi berezia egitea gure herriarentzat.
- Espainiako gaixotasun profesionalen zerrenda eguneratzea, osasun mentaletik eratorritako patologiak eta lanari lotutako gaixotasun mentalak sar daitezzen.
- Laneko Ezbeharren Aurkako Txoke-plana premiaz antolatzea, Elkarrizketa Sozialerako Mahaia irekiz. Talka-plan honen ildoan artean ezin da falta langileen artean arrisku psikosozialen eragina murriztea.
- Enpresek eta administrazioek osasun mentalean egiten dituzten inbertsioak handitzea.
- Laneko arriskuen prebentzioari genero-ikuspegia ematea.
- Lan Ikuskaritza indartzea, giza baliabideen eta baliabide materialen bidez, legea betetzen dela zaintzeko. 10.000 langileko ikuskatzaile bat izateko LANEren (OIT) gomendioa betetzeko eskatzen dugu.
- Mutualitateen araudi berri baten onarpena sustatzea, langile guztien osasunaren interesak benetan zainduko dituen, eta mutualitate batzuek kontingentzia profesionalen kudeaketan egindako praktika txarrak desagerraraztea.
- Laneko gaixotasunak ditueni edo laneko gaixotasunek eragindako pertsonen mutuek ematen dieten zerbitzuaren kalitatea hobetzea, beharrezkoak diren baliabideak erabiliz eta psikologo eta psikiatren plantilla handituz, lanak osasun mentalean eragindako kalteei aurre egiteko.
- Estatu mailan figura bat sortzea, Laneko Arriskuen Prebentziorako Lurralde Ordezkararen antzekoa, autonomia-erkidego batzuetan dagoena.
- Laneko estresaren, laneko indarkeriaren eta laneko jazarpenaren aurkako protokoloak negoziatzea enpresetan eta herri-administrazioetan.
- -Osasun mentalari eragindako kaltearen konponketa eta halakorik berriro ez gertatzea bermatzea, prebentziosko ikuspegi aktibo batetik jardunez.

- Langileei prestakuntza eta tresnak ematea, beren osasun mentalean eragina izan dezaketen eta lan-ingurunean gertatzen diren egoerak identifikatu eta haien aurrean jardun ahal izateko.
- Langileak prestatzea, lan-munduaren trantsizio digitalera hobeto egokitu daitezten.
- Prebentzioaren kudeaketa sustatzea enpresaren barruan, kanporatze masiboa saihestuz.
- Kanpoko prebentzio-zerbitzuen prebentzio-kudeaketaren kalitaterik ezari heltzea, irailaren 20ko TIN/2504/2010 Agindua berraztertuz eta aldatuz

